

Garai artako aldizkari batetik artua. Argazki ontan, Jautarkol'en inguruan, euskal arazoetan izen aundiko beste jaun batzuen artean, lan onen egillea.



LUIS JAUREGI, "JAUTARKOL", OLERKARI ERRENTERRIARRA

Gauza guziak izan oi dute beren «xaltxa», beren inguru-giro. Eta bakoitza bere giroan obeto ezagutzen da.

Gure Jautarkol'en giroa, gizaldiaren aurren-urteetako Comillas'ko Unibertsidadean izan zan. Euskal-literaturarentzako giro berezi polita. An sortu bait ziran «Aitzol» bat, eta Oyarzabal, eta Markiegi, eta Gartzia Goldaratz, eta Larrea eta Etxaniz; eta aien artean gure Luis Jauregi.

«Orixe» aundia zebillen tarte artan. «Orixe» Comillas'en, zenbait jakingarritan Maisutxo, «Maestrillo» zegon. Beste jakingarriak ere erakusten zituan; baiñan guretzat, batez ere, berak erakarri zituan Euskeraren alorrera, bere mendeko mutil aietako batzuek: arestian aipatu ditugunak batez ere; eta aien artean —esan degu— gure Jauregui'tar Koldobika, gero bere izengoiti «Jautarkol» oso ezaguna egingo zuana.

* * *

Euskal-giro artan gure Koldobikarentzat tentaziorik aundiena, euskerazko olerkaritza izan zan. «Humanitates» diralak ikastaldietan Literatur-Irakasleak irakurtzen zizkien erderazko olerki-ereduak, atximur aundi egiten zioten nunbait bere barrunbean —jaiotzez olerkari-sena izaki, nunbait—; eta denbora berean Euskeraren oi biokorra ere sakon-sakon sentitzen bait zuan bere barrunbe artan, lagunartean erabiltzen zituzten asmoen artean arkitzen zuan ark bere neurri-neurriko: erderaz entzuten zituan olerki aien antzeko zerbait, berak euskeraz egitea... Besteak egin zitatzela, Gramatikako ta Filosofiko ta Teologiako saioak; berak olerkiak egingo zituan... Orla izan bide zan gure Koldobika'ren olerkaritzako «asiera». Eta oitura zutenez, berak eta bere lagunak Orixe'ri beren lan-saioak erakusten zizkiotenean, pozik entzuten zituan gure mutillak, Maixuaren aotik jalkitzen ziran zorionak. Eta ola «osotu» zan gure Jautarkol bere olerkari-arloan.

* * *

Ordutsoan, azkar asko asi giñan gu, «Jautarkol» izengoitia ikusten, euskerazko zenbait Aldizkaritan: «Jautarkol» izengoitia, olerki labur, xamur, goxo zenbaiten oñean.

Baiñan gure errenteriarra, etzan, beste asko bezela, ortan gelditu, Aldizkarietan bein eta berriz olerkiak argitaldu ta argitaltzen, alegia. Guk usteritan gutxiena genduanean, Koldobika'k liburuxka batean eman zizkigun bere sorkaririk onenak. 1929'gn urtea zan.

Zer esanik ez, arrera ona, oso ona egin zitzaiona, gure errenteriar jatorraren liburutxoari. Gogoan daukat, «Kizkitza» batek Bilbao'ko izparringi batean egin zion ongiatorri beroa liburu bitxi arri.

* * *

«Biozkadak» du liburuak izena. Izen egokia. 106 orrialde ditu. Olerkiak, 50. Danak labur. Liburuaren orrialdeak ederrak apainduak. Iruñe'ko «Zeruko Argiaren» irarkolan irarria. Aita Damaso Intzako'rena, itzaurrea. Dana egoki-egoki.

Olerkien muiñaz, zer esan? Muiñ liriko-liriko dutela. Bat ere ez epika-turut-otsekorik. Dana lore, lore xamur. Pentsakera, goxo. Bertso-neurria, aberats. Rima, txukun. Izkuntza, errex. (Aldian bein gramatikaz, lasai-antxa.) Edozeinek xurgatzeko ur garbi. Txurru labur geienean.

* * *

«Bertso gaxoak» du izena, liburu lenengo olerkiak. Eta kezka bat aitortzen du olerkariak lenengo olerki ortan: bere olerkiok geroan fruiturik eman gabe galduko ote diran.

Udazkeneko aize zakarrak
zugaitz ostoak —ori ta igarrak—
lurreratzen ditunean,
naigabe baten arantz zorrotza,
beazunezko tanto mingotza
nabaitzen det biotzean.
Or eta emen, oi! banatuak
dabiltzan nere bertso gaxuak
laister eroiko ote dira,
osto ori ta igar oien antzera,
eriotzaren zulo leizera,
ai! ta illobiko illundira?

Kezka ori bere biotzetikan kentzeko, biderik egokiena asmatu zuan: bere bertsoak bilduma batean argitaltzea.

Esan-da-egin: ola lortu zuan, alde batetik aizeak ez eramatea; eta bestetik, fruitu eder ematea, ondoren zetozean olerkari-kumeai eredu bizkorgarri bat ipiñiaz.

Ondoren etorriko ziran olerkariaren sorkariak, elduagoak eta garratzagoak izango ziran; baiñan, beren goxoan, Jautarkol'enak xuxpertuko zituzten, bestela, bear bada esnatze lotan iraungo zuten olerkari askoren otsaundiko sorkari bikainak.

Benetan Jautarkol, bere «Biozkadakin» olerkari askorentzat esnatzaile izan genduan.

Lekuona'tar Manuel'ek